

Goierriarra

305. zenbakia 2006ko uztaillak 21



¡VOTO POR LA PATRIA

1936ko gerra

OROIMENA BERRESKURATUZ

**OPORRETAKO
ARGAZKI-LIBURUA**

fotoetxe-n eska ezazu

39e tik





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.


Nobedadea! Gantza kirurgiarik gabe kentzen dugu,
Ultrashape Contour metodoarekin (ultrasoinuak)

- laser depilazioa
- aurpegiaren gatzetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Gerra zibila hasi zela 70 urte



Patxi Iraola

Beatzirehun da hogeita hamasei eman nahi dut aditzera uztailaren hemezortzia hemeretzian bezpera iritsi ziren anai arteko gerra krudela sortzera babestuzeko prestaturikan lur obi edo trinxera eta honela saltatu ziran anaiak elkar hiltzera.

Madril aldetik Francisco Franco napar aldetikan Mola surgatu nahirik abertzale ta ezkertiarren odola gerraz pakea egiten zail da hau ez degu parabola hirurogeita hamar bat urte eta oraindikan hola? zor dena onez ordaindu arte pakerik ez da inola.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierriko hitza.info

Telefonoa:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 346

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

4. Errezeta: Mihi-arrain pastela.

Aholkua: Ordenagailuko informazioa nola babestu.

5. Erreportajea: Gerra zibila hasi zela 70 urte:

6. Tomasi Redondo

8. Luis Lasa, Santi Agorreta eta Antonio Igarzabal

10. Nikolas Zabaleta

12. Antonio Ramos

14. Beasaingo gau odoltsua

18. Elkarrizketa: Eredu, kanpineko eta kotrakteko altzariak.

22. Erreportajea: Garia garai batean bezala.

26. Non zer.

28. Iragarki laburrak.

30. Argazki zaharra.



Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala





Kontxi Aizpuru
Hertza Taberna Jatetxea
Ordizia

Osagaiak

- 3 mihi-arrain
- 50 gr. gurin
- Arrautza bat
- 300 gr. arroz
- Limoi bat
- Katilukada bat esne
- Goiladakada bat irin
- Ardo zuria
- Ogi birrindua
- Gatza
- Olioa

Mihi-arrain bakoitzetik 4 xerra atera, gatza bota eta labeko ontzi batean jarri ondoren limoi zukuarekin, ardo zuriarekin eta olioarekin busti. 15 minutuz labean sartu, indar ertainean.

Arroza egosi. Gurin goiladakada batekin, irinarekin eta esnearekin bexamela egin. Ondoren bexamel horri arrautza irabiatua gehitu eta egositako arrozarekin nahastu.

Labeko ontzi bat, gero mahaira ateratzeko modukoa, gurinarekin igurtzi. Ontziaren hondoa bexamel eta arrozarekin egindako orearen erdiarekin estali. Gainean arrain xerrak jarri eta gainontzeko orearekin estali. Ogi birrinduarekin hautsezatu, gainetik gurin urtua bota, labean gratinatu eta jateko prest dago. On egin eta ondo pasa Ordizia-ko festak!

Zure informazioa garrantzitsua delako

AHOLKUA

Ordenagailuetan geuretzat balio handia duen informazio asko izan ohi dugu. Erabilera okerraren ondorioz, ezjakintasunaren ondorioz, edo beste arrazoiren batenatik beharrezko informazioa betirako galdu dezakegu.

Argi joateak

Ordenagailu asko hondatzen dira ekaitz egunetan edo argia joaten denean. Hauek tentsio igoerak sortzen dituzte eta ondorioz kalteak. Babes bezala tentsio egonkortzaileak erabiltzea komeni da. SAI-ak ere interesgarriak dira, nahiz eta argia joan, ordenagailua

piztuta mantendu nahi badugu. Hauek bateria bitartez ordenagailua denbora batez erabiltzeko aukera ematen dute, tentsio aldatketak egonkortuz.

Birusak

Ordenagailu asko kutsatzen da birusak direla eta. Beti ere seguruago lan egingo dugu egunero eguneratzen den antibirus bat jarriz gero: Panda, Norton, McAfee, Karpesky, Nod32, AVG...

Segurtasun kopiak

Segurtasun kopiak egitea ere beharrezkoa da, informazioa galdu nahi ez badugu. Horretarako ere progra-

mak erabil daitezke, norbera egunero lan horretan aritu ordez, zenbait programak beraiek egiten dituzte segurtasun kopiak: Hardcopy, Secondcopy, Cobian-Backup... Kopia hauentzako soportea bezala erabil daitezke adibidez: bigarren disko gogor bat (ordenagailu barne edo kanpoko), CD-a, DVD-a...

Oinarrizko ezagutza

Informazio asko galtzen da, erabiltzaileak informatika mailan oinarrizkoak diren ezagutzak ez dituelako. 10-20 orduko ikastaroa nahikoa da oinarri hori lortzeko, adibidez Windows-ena.



Jose Luis Estala
Informatika teknikaria
Infonet - Ordizia



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

- Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak**
- Filtroak, olioak, engrasea**
- Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak**
- Harezko txorrotadak**



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Gerra zibila hasi zela 70 urte

1 936ko uztailaren 18an hasi zen Espainiako Gerra Zibila. 70 urte pasatu badira ere, oraindik ere oso gogoan dagoen gertakizuna da. Batzuk, alde batean edo bestean, gerran parte hartu izan zutelako; beste batzuk, haurrak izanagatik, gerraren krudeltasuna gertutik bizi izan zutelako. Garai hartako testigantzak biltzea gero eta zailagoa da bertan izan zirenak gero eta gutxiago bizi direlako. Hurrengo orrietan, hainbat goierritarren testigantzak bildu ditugu, gerraren alde ezberdinak biltzearen. Anaien arteko gerra izan dela esan izan da eta horrela nabarmendu dute gure elkarrizketatuek. Goierrin, Espainiako Gerra Zibilaren gertaerarik larriena, Beasainen gertatu zen, 1936ko uztailaren 27ko gauean, hainbat herri-tar fusilatu baitzituzten, Zapatari etxean. Bertako testigantza zuzena ere bildu dugu hurrengo orriotan.



Ander Iurritak utzi digun argazkia 1936ko urriaren 9an Gernikako Arbolaren aurrean atera zuten Amaiur batailoiko 4 gudari hauek: Patrizio Zabaleta (Itsasoko Jauregi Goena baserrikoa, 1937an gerran hil zena), REXURREZION AROZENA (Gabiriako Igeribar Azpikoa baserrikoa), Pedro Murua Izagirre (Gabiriako Izar Haundi baserrikoa) eta Joxe Manuel Mendia 'Kaskante' (Gabiriakoa).



Tomasi Redondo ordiziarra da. 79 urte ditu. Gerra piztu zituenean, 8 urte zituen, 9 egiteko. Oso ondo gogoratzten da gerra zibil garaiaz. “Urte asko pasatu dira baina garai hartako kontuak oraingoak baino hobeto gogoratzen ditut”, adierazi du. Bi data oso gogoan ditu Tomasik: 1936ko abenduaren 4a eta 1937ko azaroaren 27a.

Gaur egun ere Ordiziako Urdaneta kalean Redondo Begue janaridenda dagoen leku berean zeukan Tomasiren familiak ontzi denda. Aita, Benito, gurdia-ekin eta astoarekin garraioan ibiltzen zen, “geltokian jeneroa hartu eta lantokiatar eramanez”. Dendaz gain, “nire gurasoak azokaz azoka ibiltzen ziren. Festetan, tiropitxoia jartzen zuten, 6-7 karabina zituzten. Urte hartan, tonbola jartzekoak ziren”.

Gerraren ondorioak Goierriara heltzen hasi zire-

nean, Donostiara joan ziren. Han egin zituzten 21 egun. “Etxera itzuli ginenean, dendan geneukan guztia lapurtu zigutela ikusi genuen. Nik neure itsulapikoa banekuan, 33 pezetekin. Itsulapiko hura ere kendu egin ziguten. Denda guztia, gauzaz beteta geneukan festetan tonbola jarri behar genuen-eta”.

Aita Etxarrin fusilatua

Donostiatik itzultitakoan, aita buru belarri hasi zen lanean, gurdiarekin eta astoarekin. Berehala, erreketetalde batek atxilotu zuen. “Nahasketa bat zela esan zien nire aitak, eta ezetz. Gurdia etxera eramaten utziko ote zieten galdetu zien eta baietz. Amari esan

“Beraiei egindako omenaldia da hau guztia kontatzea”

zion atxilotuta zeramatela eta konfusioa izango zela, bestela ezin zitekeela. Nire aitak inori ez zion botorik ematen, denetatik bizi zela esanez”, gogoratu du Tomasik.

Ordiziarren esanetan, “badakigu nork jarri zuen nire aitaren aurkako salaketa. Gure negozio berdina zuen herritar batek. Hiltzera zihoanean, denei barkamena eskatzen aritu zen baina guri ez zigun eskatu. Inbidiatatik izango zen... gu kastellanoak ginen, beraiek euskaldunak... Inbidia oso txarra da eta auskalo zein salaketa jarriko zion: errepublikarra zela, elizara ez zihoala...”

Lehenengo bizpahiru egunetan, Ordiziako udal-etxean eduki zuten, gero Beasaina eraman zuten. Handik, Iruñara, San Cristobala eraman zuten. “Aitak eskutitzak idazten zizkigun. Ama ezin zen herritik atera eta ezin zen aita ikustera joan”.

Abenduaren 4an, kartzelatik ateratzeko askatasuna ematen zion agiria sinatu zuen. Baina ez zen etxera iritsi. “Iruñan egon zen batek, Mintegik, esan zigun ai-

ta atera zela. Baina ez zen iristen. Ibarbiarengana joan zen ama, harreman handia zuen. Zer gertatzen zitzaion kontatu zion. Garai hartan ez zegoen telefonorik. Han bazuela lagun bat eta hark askatasun sinadura botata joan zela kartzelatik esan zion eta iritsi ez bazen, hil zutenaren seinale zela. Kamioietan sartu eta Etxarri aldean hiltzen zituzten eta nire aita ere bai”. Oraindik ez du Redondo familiak bere aitaren gorpuzkin aurkitu. 1936ko abenduaren 4an hil zuten Benito Redondo, 55 urte zituela.

Ama azokan zegoen egun batean jakin zuen senarra Etxarri-Larraunen hil zutela. “Egun batean, nire ama azokan zegoen, utzi ziguten gutxi hura saltzen. Lutoan zegoen. Emakume bat etorri zitzaion norbait hil ote zitzaion galdezka. “Hil egin da ez, hil egin digute” erantzun zion nire amak. “Inori ez iezaiozu ezertxo ere esan, bestela ni ere hil egingo naute eta. Zure senarra Etxarri lurperatu dugu, zubiaren ondoran”, esan zion emakumeak. Kamineroak ziren eta hil zituztela jakiten zutenean, gauean, anaia eta bera, hildakoak lurperatzera joaten zirela esan zioen. Hildako batzuk Etxarriko hilerrian lurperatu zituzten, nahiz eta gero abisatu ere egin gabe

Aitaren eta anaiaren gorpuzkinak aurkituta, zoriotsuena izango nitzateke.

atera. Baina nire aitaren inguruko berririk ez dugu gehiago jakin”.

Anaia Gijonen fusilatua

5 anai-arreba ziren Tomsin eta familia. Fausto anaia, Gijon hil zuten, aita hil eta 11 hilabetera, 1937ko azaroaren 27an. “Nire anaia soldadutza bukatzen ari zen, Gijonen. Ordiziako erreketek batzuekin topo egin zuten eta hurrengo egunean erreketek jantzia ekarriko zela esan zuten, kamuflatu eta alde egiteko. Gerra bukatzen ari zen. Hurrengo egunean itxoiten ari zela, Zaldibia eta Lazkaomendiko erreketek zeramatzen kamioia pasatu zuten, Argiñano buru zutela, ezagutu egin zuten eta lau tiro ematea agindu zuten Argiñanok. Atzetik ordiziarrak iritsi zinerako hilda zegoen. “Guri itxoiten ari zen-eta!” esan zuten. “Eginda dago eta kito!” erantzun zuten”.

Argiñano bera etorri omen zen Ordiziara herriko alkateari albistea ematera. “Berria ematera etorri zenean, nire ama kalea garbitzen ari zen erratzarekin. Argiñano hura zertara etorri ote zen pentsatu zuten nire amak. Berak zertara etorri zen jakin izan balu erratzarekin txikituko zuela esaten zuten, txikia zen eta. Felipe Imaz gozotegira joan zen, Alkatea gozotegiaren nagusia baitzen. Gozotegian bi emakume zeuden. Haiek esanda jakin genuen berria. Alkateari, albiste bat jakin behar zuela esan zion. Redondo hil zutela esan zuten, alkateak burua heldu eta “herriko semerik onena zen eta!” esan zuten. Letreren pintorea zen. Quilezekin ikasi zuten margotzen. Ema-



Goiko argazkian, Benito Redondo, bere gurdiarekin. Eskuinekoan, Fausto Redondo, soldadutzan.

kumeek nire koinatari eman zioten berria. Berehala jakin genuen. Alkatea karlista zen, baina haur txiki batek bezala negar egiten omen zuten. Karlista zen, baina gauza batek ez du zerikusirik bestearekin”.

Gorpuzkinik aurkitu gabe

Aitaren eta anaiaren gorpuzkinik aurkitu gabe jarraitzen dute oraindik ere Redondotarrek. Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin, behin eta berriz saiatzzen ari badira ere. “Gorpuzkinak aurkituz gero, zo-



riontsuena izango nintzake. Panteoia daukagu eta hantxe sartuko genituzke”.

Omenaldia

Aita eta anaiaz gain, gerora bere aitaginarreba izan behar zuena ere Beasainen hil zuten. “Begué zen hura”.

Tomasi ohituta dago historia hau kontatzen, batean eta bestean ibilia baita. Madrila ere joan zen Aministry Internationalek gonbidatuta. Guzti honekin, barrenak husteaz gain, omenaldia egin nahi die aitari eta anaiari. “Niretzat hau dena kontatzea, beraiei egindako omenaldia bezala da”.

Gerra zibilaren 70. urteurrena ospatzen da aurten eta ez du uste Ordizian ezer egingo denik, omenaldi gisa. “Leku askotan gauzak ari dira antolatzen 70. urteurrena dela eta baina Ordizian ez da ezer egiten. Karlista asko dago. Ordizian ez da sekula ere ezer egin”.

Haurtzaro gordina

Tomasi gerrako haurra da, “haurtzaro garratza” bizi izan duela aitortzen du. Eskola nazionaletan ikasten zuten eta karmelitakoek, “gorria” deitzen zioten, aita hil ziotelako. “Egunero etxera negarrez etortzen nintzen”.

Beste oroitzapen bat ere badu Tomasik: “Gosea zegoen eta Florita Roak, falangearena zen jangelara joan behar nuela jatera esaten zion nire amari. Amak ez zuten nahi, patatak jan behar baditugu, jango ditugu! Esaten zion. Ezetz eta ezetz, berak eramango ninduela, bizilaguna zen eta. Cara el Sol kantatu arazten ziguten. Ni ixilik egoten nintzen, aita hil zioten beste mutiko bati eskutik helduta. Kantatu egin behar nuela esaten zidaten, baina nik ezetz. Egunero bi zaplazteko jasotzen nituen eta postreterik gabe gelditzen nintzen. Haur bat nintzen, baina oso barneratua neukan”.

Bere aita “salatu” zutenekin elkarbizi behar izan du Redondo familiak. “Seme-alabek ez daukate ezeren errurik. Nik ez diet sekula gorrotorik eduki. Bera bai, bera gorroto nuen”, aitortu du.

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA



Uztailaren 27an Beasaingo sarraskia izan zela jakin zutenean, izututa, Gabiriko gazteek, alde egin zuten. Eusko Gudarostean ibili ziren, 90 urteko Luis Lasa, 87 urteko Santi Agorreta eta 86 urteko Antonio Igartzabal. Santi adibidez, “karrilean zebilen lanean, Renfen. Argixaon nenbilen lanean eta Gabirin sartu zirela esan ziguten. Urolako tren hartu, Zumaian jaitsi eta Durangora joan ginen”.

Esaten denez, Gabiria izan zen, biztanle kopuruaren proportzioa kontuan hartuz, gudaririk gehien izan zituen herria. Hildakokak ere, dozena bat inguru izan ziren.

Francoren erasoetatik babesteko sortutako armada zen Euzko Gudarostea. Hasieran, gerra-komite batek gidatutako soldadu boluntarioz osaturiko taldea izan zen. Eusko Jaurlaritza eratu zenean, Euskal Herriko gune garrantzitsuak gol-

pisten esku zeudela eta, Jose Antonio Agirre lehendakariak 40.000 gudariz osatutako euskal armada autonomoa antolatu zuen. Bataloiak ideologiaren arabera osatu ziren: nazionalistak, sozialistak, komunistak eta anarkistak.

Hiru gabiriarrak garbi daukate, akatsa izan zela herritarrak konpainia berean egotea. “Bataloi asko zegoen baina kalterako izan zen herritarrak denak batera jartzea”, diote.

Amaiur bataloian ibili zen Antonio. Maniobrak egitera etorri ziren eta anaia zaharragoari jana eramatera joaten zen Antonio eta horrela gelditu zen gudaloste-

“Beasaingo sarraskiaren ondoren alde egin genuen beldurrez, Gabirin sartuko zirela esaten zuten eta”

an. Dena den, 16 urte zituen eta gazteegia zelakotan, Munitibarko baserri batean egon zen morroi.

Luis eta Santi, Sarasketa bataloian ibili ziren. Santik gogoratu duenez, Telesforo Gorzonan anaia zen burua, Bixente. Batez ere Bizkaia aldean ibili ziren borrokan. “Hasieran ez baterako eta ez besterako, eta Durango moja komentu batera joan ginen. Duro bat ez nuen ikusiko orduan. Karrilean nenbilen lanean eta kapatazako duro bat zilar eman zidan. Nik gaur egun gizon hari ez dakit zenbat eman gion niokeen. Gizon fina zen”.

Kangrejuak bezala atzeraka

Batean eta bestean ibili ziren, mendian, batez ere gauean, aurrera egin

nahian. Aitzurra eta pala bizkarrean hartuta ibiltzen ziren, babeserako lubakiak egiteko. “Mendian egiten genuen borroka, gauez. Egunez ez zegoen mugitu ere egiterik. Baina beti kangrejuak bezala ibiltzen ginen, atzeraka-atzeraka. Gure aldetik ez zegoen aukerarik, gogoia bai baina. Gure armak batere balio ez zuenak ziren. Formaziorik ere ez geneukan, motiborik ez genuen-eta”. Antoniok gaineratu duenez, “gure armak ikusi edo haienak ikusi bazen alde! Nahi zutena egiten zuten”. Gabiriarren artean, borrokalari onak baziren. Antia bat adibidez, Santiren esanetan.

Bizkai aldean ibili ziren gehienbat. Otxandion egon zirenekoa oso gogoan dute Luisek eta Santik. “Beltzak pasatu genituen. Tiroak ma-

Mendian egiten genuen borroka, gauez. Egunez ez zegoen mugitu ere egiterik. Gure armak batere balio ez zuenak ziren. Formaziorik ere ez geneukan, motiborik ez genuen-eta.

jo harrapatu genituen Otxandion”, diote. “San Antonioko ermitatik gora Maiguenagako Joxe, zaurituta ikusi nuen”, dio Santik. Herriko hildakoak ere ikusi zituzten. “Hemengo jende gehiena Bizkargin hil zen”.

Antonio ere gertuan izan zen: “San Antonio bonbardatu zutenean, ni Mañaria-ko elizako kanpandorrea nengoan”.

Kartzelara eta frentera

Atxilotu eta denboralditxo bat kartzelan pasatu zuten. Handik, Francoren aldeko frentera eraman zituzten. Valladoliden, Ebron, Guadalajaran, Madril... ibili ziren. “Bartzelonan beltzak ikusi genituen. Jainkorik ez dagoela baina Jainkoa bada, guri lagundu zigun-eta”, zehaztu du Luisek. Santik aitortu duenez, “kartzelan sartu nindutenean, lasaiago nengoan. Hobeto egon nintzen kartzelan”.

Euskaldunei “gorri separatistak” deitzen zieten eta frentean, aurreko taldeetan beti euskaldunak bidaltzen omen zituzten.

Gerrako egoera latzetera moldatu behar izan zuten. “Hildako asko ikusi genituen. Txakurrak bezala hiltzen zituzten soldaduak. Dena den, ohitu egiten da, jarri egiten da”.

Antioniok dena den, zorrote hobeia izan zuen eta tiroen artean ibili beharrik gabe, telefono kableen artean aritu zen. “Telefono zentralitan sartu ninduten. Lleidan, sei kableko zentralitan egon nintzen, erdaraz ere ez nekien eta baino. Digame, pongame... esaten nuen”, gogoratu du Antioniok.



Amaiur bataloiko Gabiriko bainbat soldadu.

Gari-jotze eguneko kontuak

Gaur egun garirik ez da gurean, baina duela 45-50 urte bai. Gari-jotze egunean auzotarrak elkartzen ziren eta hizketako gaietariko 1936ko gerra izaten zen. Halako bataila, hango tiro hotsa, halako baserrikoa hil zenekoa... Gu gerra kontuez hitz egiteko, Ostatuan elkartu gara. Garbi daukate beraien gaztaroa izurratu zuen gertakizuna izan zela 1936koa. “Guk zer genekien ba politikari buruz? Beasain aldean izan zirenak jakin ondoren, alde egin zuten herritik. Guri tokatu zitzaigun eta gure gazte denbora hor joan zen”, diote. Luis Lasak bere bizitza honela laburbildu du: “Gure gazte denbora ez zen erraza izan, zazpi urte pasatu nituen gerran. Gure gazte denbora hor joan zen. Gero ezkondu, eta lana besterik ez dugu egin”.

Luis, Santi eta Antonio kontatzeko moduan daude baina beste asko ez ziren itzuli. Hiruek ere garbi daukate, besteentzat nahi ez dutena: “Ez da dila berriz horrelakorik gertatu”.

**Amaiur
bataloiko
gabiriarren
zerrenda.
Izenaren
alboan
gurutzea
dutenak,
gerran
bildakoak
dira.**

AMAIUR-en 1936-KO GUDAN IBILI ZIREN gabiritarrak			
izen abizenak	baserria	izen abizenak	baserria
Francisco Alustiza	Onatbi-handi	Casimiro Salsamendi	Astiazaran
Pedro Murua	Izar-handi	Resurreccion Arozena	Igeribar-azpikoa
Eugenio Murua	" "	Jose Markina	Erramentari-zahar
Agapito Zufiaurre	Artzain-	Pedro "	" "
Vicente Urbiztondo	Arroa	Angel Izagirre	Igeribar-errotia
Patxi Murua	Alkain	† Jesus "	" "
Manuel Murua	" "	Domingo Ariztimuho	Igeribar-garakoa
Jose Apaolaza	Odolkiaga	† Jose Maria Gabiria	Bekoetxe
Tomas Unia	Arane	Martin Otegi	" "
Pio Gurrutxaga	Zantarte	" "	" "
Juan Irastorza	Urkitzegi	Eusebio "	Etxevro
Lucas Uliando	" "	Pedro Alustiza	Legorburu
Jose Martin Sagastizabal	Altolagirre-azpikoa	Juan Jose Deba	Etxe-handi
Dionisio Antia	Altolagirre-garakoa	Inazio "	" "
Jose Manuel Mendia (kaskantel)	Etxeberrí	Roke Oiarbide	Bidaurreta
Jose Atin	Altzibar	Pelix "	" "
Tomas Irizar	Ehizmendi	Eugenio Azarola	Mandiola
Juan Jose Etxaleku	Aranburu-azpikoa	Antonio Ariztimuho	Izar-barrena
Antonio "	" "	Luis Alzueta	Izar-erdi
Vicente "	" "	† Simon "	" "
Pablo Oñatibia	Arane-txiki	Guillermo Gabilondo	Madariaga-barrena
Antonio Igarzabal	Aranburu	Jose Telleria	Madariaga-goena

Zunzunegi
Oinetakoak
Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390
Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327
San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak



Gerra piztu zenean 27 urte zituen Nikolas Zabaletak. Soldadutza eginda zeukan, Afrikan. Egun batzutan, etxetik ihesi ibili zen, mendian lo eginez, Zegamako beste hainbat gazte bezala. “Zegaman ez zegoen halako zalapartarik baina Beasainen bai. Halako eraman behar zutela Beasaina, beste ere bai... eta gazte jendea ihesi ibili ginen. Egoera zertxobait lasaitu zela ikusi genuen”, gogoratu du Nikolasek.

Santiago bezperan, uztailaren 24an alegia, iritsi ziren nafar erreketek Zegamara. “Nafarroan sortu zen foko bat. Chevrolet kamioi berri-berri batean etorri ziren, eta 20-30 urte artekoak udaletxera aurkezteko deia egin zuten, armak hartzera. 26 urte nituen nik”. Aurretik, soldadutza egina zuen, Afrikan. Nikolasi, beraz, kabo kargua eman zioten, “baina sargento kargua askotan bete behar izan

nuen”. Zegamarrak aitortu duenez, “boluntario behartuak ginen gu”, dio zegamarrak, “behartuta joan ginen, ez ginen joan nahi genuelako”. Erreal bateko soldata jasotzen zuen kaboak.

Zumalakarregi konpainiako erreketea

Kaki koloreko uniformeak, txapel gorriarekin, oinetakoak, manta eta arma eman zizkiote Nikolasi. “Fusilik ez zegoen artean. Nafarrek ekarri zituzten, baina behar adina ez. Ehiztarien eskupeetak ekarri zituzten eta denei arma bana eman ziguten. Soldadu batek 30 bat kilo eraman behar izaten ditu: fusilak, kartutxerak, eskuko bonbak, mantak... Ezinean dabilenean, lehenengo mantak utziko ditu bidean, azkena, armak.

Zumalakarregi konpainia osatzen zuten zegamarrak, Arrasate, Bergara, Zarautz, Zumaia eta beste herri batzuetako jendearekin.

“Santiago bezperan, 20-30 urte artekoak udaletxera joateko agindu zuten, armak hartzera”

“Baja asko izan genituen eta azkenean, Lizarrako Montejurra konpainiarekin bat egin genuen”, gogoratu du Nikolasek.

Mendiz mendi

Mendi aldera joan ziren, Legazpitik barrena, Oñati hartzea baitzuten helburu. “Bertakoak ginen, baserritarak, eta mendiak ezagutzen genituen. Legazpi aldekoek antzeman egin zuten. Gure misioa Oñatiraino iristea zen, Oñati hartzea, eta handik etxera. Baina azkenean bukaerairaino iritsi ginen eta hiru urte pasatu nituen gerran”.

Hiru urte haietan bizitako istorioak ugariak dira. Gerra kontu ugari kontatu dizkigu Nikolas Zabaletak, 100 urtetik gertu izanagatik, memoria ona duenaren seinale. Batez ere mendian izaten ziren borrokak. Aurrez aurrekoak asko. Udana bidean, hagitz enborrez moztutako bidean bizi izan zutena, Urbian, Arrasaten,

Castellonen, Zaragozan... “Castellongo frentean latzak pasatu genituen. Castellongo frentea oso txarra izan zen. Hamabost egun aurretik baja asko izan genuen. Bergarar bat zauritu egin zuten, iztarrean, bala sartuta. Beste bergarar batek ere hala esan zion, berak ere nahiago lukeela bala hori sartuta egotea, ospitalera joateagatik. Soldadu andaluz batzuk gehitu zitzaizkigun. Ez zuten golperik jotzen. Andaluzek trintxerarik egiten ere ez zekiten, besteek egondakoetan babesten ziren. Odol diferentekoak gara. Euskaldunak ere hoberenak izatera pasatu ginen”.

Mola generala ezagutze-ko aukera izan zuen Nikolasek. “Oso gizon jatorra zen. Zugastietan genbiltzan eta hamabost egun barru etxean egongo ginela esan zigun. Ondo zoan dena. Handik gutxira, Salamancara abioian zihoala, hil egin zuten. Irailean Bizkaira, Gal-

Gure misioa Oñati hartzea zen eta handik etxera. Baina azkenean bukaerairaino iritsi ginen.

dakaora iritsi ginen. Gernika aldean gaizki ibili ginen. Beste aldekoak ondo preparamatuta zeuden”. Franco gerrero ona zela dio, “errepublikarrek gerra galdu zuten, politikoak agintzen jarri zirelako, militarren ordeztu”.

Oñatin, preso zeuden 60 bat lagun zaintzen egon behar izan zuen garaiaz ere ondo gogoratzen da zegamarra: “Eskola batean zeuden atxilotuta; leiho handiak zituen. Komunean ere leihoa zegoen. Inor ihes egiten saiatzen bazen ere, altorik bota gabe, tiro egingo genuela esan genien. Lehenengo momentutik errespetua jarritz, ondo konpondu ginen, beraiek egindako proposamenak betetzen saiatzen nintzen. Lagunak egin ginen. Preso egondakoren bat Donostian ikusi izan dut eta hizketan egon ginen, eta zein apurotatik atera nituen esaten zidan”, gogoratu du Nikolasek. 15 egun egin zituen. “Ordurako Zirkulua bazegoen eta egin zitezkeenak eta ez zitezkeenak egin agintzen zituazten”.

“Denera jartzen da”

Egoera errazagoak eta zailagoak bizi izan behar izan zituena Nikolasek. “Denera jartzen da. Zaildu egiten da bat”, esan digu. “Norberaren burua salbatzea da izaten soldaduen helburua eta asko ikasten da. Soldadu batek urtebete gerran eginda asko ikasten du, kapitai-



Nikolas Zabaleta ezkerrekoa da, gerra garaian ateratako argazkian.

nak adina. Zorteak eta norberak ere zerikusitua handia du. Arriskua usterik gutxiena dagoen lekuan izaten da. Egia esan hartarainokorik ez zitzaidan tokatu”.

Egun guztiak ez dira berdinak izaten. “Batzutan lasaiago eta beste batzuetan larriago ibiltzen ginen eta jolaserako tarteak ere hartzen genuen eta eskolameak bezala aritzen ginen, apustuak

eginez. Azpeitiarrak ere baziren tartean eta errekarren bat bazegoen, harri bila joaten ziren, nork handiagoa jasoko. Beste joko askotan ibiltzen ginen.”

Euskaldunon fama ona

Alemaniarrek ere ezagutu zituzten Nikolasek frentean. “Gerra mundiala prestatzera etorri ziren. Abioiak ere

Haurdun zegoen emaztea eta semea utzita gerrara

“Kontu hauek besteei aitzeko hobeak dira, norberak bizitzeko baino”, esan digu Nikolas Zabaletak. “Gerra Zibila senide arteko gerra izan zen Espainian, anaiak anaien aurka. Mendietan elkarren aurka ibili behar izan genuen borrokan”.

Etxean emaztea eta semea utzita alde egin zuen gerrara zegamarra. Bidean, gainera, bigarren semea zetorrela. Ahal zuten bezala izaten zuten elkarren berri. Gehienetan eskutitz bidez komunikatzen ziren baina Zegama inguruko parajeetan zirenean, ahal zuenean, egiten zuten Nikolasek etxerako buelta; berak dioen bezala, “kontrabandoan” eta badaezpada ere, gezurren bat edo aitzakiaren ondo pentsatuta.

ekarri zituzten”, gogoratzen du.

Euskaldunek fama ona omen zeukaten. “Guk euskaldunok, gerreroen fama hartu genuen. Legionarioak hobeto ikusita egoten ziren, arriskua ere gehiago zuten, baina azkenerako haiekin ikasi egin genuen eta azkenerako 2 errealeko legionarioak izatera iritsi ginen”, zehaztu du zegamarra.

irabazleak...



asteburu bat ERRATZUN

- Asun Aldanondo. Luis Mari Goia harategia. Idiazabal.
- Amparo Sánchez. F. Salegi harategia. Zumarraga.
- Margarita Guijarro. Iñigo Agirre harategia. Zumarraga.
- Carolina Sánchez. J. Javier Otaegi harategia. Zumarraga.
- Rosario Amedo. Juan Jose Otaegi harategia. Zumarraga.


ondopasa!!



www.xetai.net

Zurgintza eta altzarigintza zure neurria

Tel.: 658 70 99 22 Faxa: 943 88 85 41
BEASAIN



Pasaitarra da Antonio Ramos. Gaur egun Beasainen bizi bada ere, haurtzaroa, gerra zibila, Pasaian bizi izan zuen. Gehiago zehazteko, gerraren hasiera eta bukaera, bitartean han eta hemen ibili baitzen eta amarekin eta arrebarekin, aita gerran zebilen bitartean.

8 urte zituen gerra hasi zenean, 9 egiteko, baina ondo gogoratzen du Pasaia-tik atera eta 3 urteko ibilbidea: “Nire aita portuko komisarioa zen eta Pasaia-tik itsasuntziz Bilbora joan ginen. Familia genuen han. Gero, 1937an, Santandarra joan ginen, Corrales de Buelna herrixkara. Handik Ribadasellera, untziratzera, eta handik, Agirre Lehendakariarekin, hura lehenago irten zen, Frantziara”.

Frantzian trenea hartu zuten. Astebete pasatu zuten trenean: “astebete tren batean pasatu genuen, inon ez gintuzten hartzen. Bordele-

ra joan eta kanpora bidali gintuzten, beste leku batera joan eta handik ere kanpora... Paristik ere kanpora... Azkenean hartu gintuzten herri txiki batean, Bologne de Bains, hartu gintuzten”.

Frantziatik Kataluniara joan ziren. “Nire aita fronte-an zegoen eta nire amak itzuli egin nahi zuen eta Katalunia beste aukerarik ez geneukan. Eusko Jaurlaritzarekin genbiltzan gu. Gero Kataluniatik berriz ere Frantziara joan ginen. Frantzian gosea pasatu genuen. Katalunian hobeto egon ginen. Nire ama gozotegi batean hasi zen lanean, Begu-

“Okerrena itzulera izan zen: etxerik ez geneukan, aita kartzelan zegoen...”

rreren, Gironan. 1939an hona itzuli ginen”, laburbildu du Antoniok bere errefuxiatu aldia.

Errusiara joan nahi

Gosea, batez ere Frantzian pasatu omen zuten. Dena den, beti moldatzen ziren: okinak etxeetan utzitako ogiari koskorra kendu... “Gironan fruta arbola ugari dago eta guk fruta lapurtzea baino nahiago zuten usteltzen uztea. Baina beti izaten zen pertsona eskuzabalen bat”, esan du Antoniok. Santanderren egondako garaiaz ere ez dauka oroitzapen onik: “jende gaiztoa zegoen. Faxista espainiarrak ziren. Baina leku guztietan egoten da norbait ona eta han ere aurkitu genuen. Gerora bisitatzera joan nintzen. Corrales de Buelnan, ezin genuen jolastu ere egin. Mugitzen ere ez ziguten uzten”, gogoratu du Antoniok.

Errusiara joateko izena

eman zuen Antonio Ramosek. “Hiru edo lau haurreko familiak, arintzearren, zenbait haur Errusiara joan ziren. Nik lau ginela esan nien eta izena eman nuen. Nire amak jakin zuen eta azkenean ez nintzen joan. Hura negar saioa! Gero poztu egin nintzen ez nintzelako joan”, gogoratu du. Errusiara zergatik joan nahi ote zuen galdetu diogu: “Errusia haurrontzat handia zen. Nire lagun batzuk joan ziren”.

Itzulera

Etxera itzuli zirenean, ez zen hobea izan. “Itzuli gine-nean, ez geneukan ezer; ez etxerik eta ez ezer ez. Nire aita kartzelan zegoen... Pasaia-ko familia batek hartu gintuen azkenean, inork ez gintuen hartu nahi”.

Aita kartzelan

Aita Ondarretako kartzelan zeukaten preso itzuli zirenean. Larrañaga bataloiko

3 urte egin zituen Antonio Ramosek, amarekin eta arrebarekin, batetik bestera etxetik hurrin.

Aita, Larrañaga bataloian ibili zen, atxilotu zuten arte.

komandantea zen eta Asturiasen harrapatu zuten. Baimendutako egunetan, Antonio, Pasaiatik Donostiaraino oinez joaten zen, bizilagunak prestatutako jana eramatera. “Behin baino gehiagotan kartzelara iritsi eta ez zidaten uzten janaririk sartzen. Kartzelero bati zerbaite esan nion behin eta lurrera bota ninduen. Bandoren bateko teniente bat zegoen eta eskerrak hari, bestela baioneta sartuko zidan”, gogoratu du.

Kartzelatik sartu-irtenean ibiltzen zuten aita. “Francoco etortzen zen bakoitzean, kartzelan sartzen zuten, 6-7 lagunekin batera”, gogoratu du.

Kartzelako sotoan ere egon zen Antonioren aita: “kartzelan zegoen okerrena zen. Han egoten ziren fusilatu behar zituztenak. Infernuraino, kamarada! Esaten zien sоторa erametan zituztenei. Hiru edo lau egunero fusilatzen zituzten. Behin, kanpoan, zertxobait jaten ari nintzela, inguruko txalet batetik gizon bat etorri zen eta zertan ari nintzen galdetu zidan. Euskalduna zen, baina Francoren aldekoa. Galdetu eta nik erantzun egiten nion. Interesatu egin zitzaion eta abokatua izan behar zenez, nire aita politikoetara atera zuten sotanoetik. Orduan epaiketa egin zioten. Bestela, sotanokoei, epaiketarik ere ez zieten egiten. Nahi zutenean ateratzen zituzten, fusilatu, Ondarretako hondartzan uzten zituzten, marea gora zetorrenean urak eramaten zituen”.



Gerra ondorengo Antonio Ramosen eskolako taldea da honakoa. Irakaslea errepublikarra zen eta ez zuten ‘Cara el Sol’-ik abestu behar izaten.

Amaren negarra, haurraren jolasa

“Pozik, bizirik gaudelako”. Horixe da, Antonio Ramosek gerratik atera duen sentimendua. 8 urteko haurra izanagatik, “persona heldu bat bezalakoa da haurraren sentipena, baina distraitu egiten du, jolastu... Bilbon geundenean, egunero bonbardatzen zuten, airez, eta gu kalean ibiltzen ginen jolasean”, gogoratu du Antoniok. “Gure ama egun osoan negarrez egoten zen, baina gu haurrak ginen”, dio.

Bilbon egon zen garaiaz ondo gogoratzen da. “Aita, Larrañaga bataloian ibili zen. Larrañaga komandantea beasaindarra zen. Artxandara-eta joaten zirenean, gurdian sartuta eramaten gintuzten gu ere. Pertsona ona zen Larrañaga”.

Agirre Lehendakaria ere ezagutu zuen Bilbon zegoela. “Eskolarik ez genuenez, kalean zegoen irakasle batek, zerbaite irakasten zigun. Eguerdiko 12etan egunero ateratzen zen, Carlton hotelean, Agirre Lehendakariak parte ematen baitzuen. Mutikoak aurreneko ilaran egoten ginen. Ona zen, gutxienez, konsekuentea”.

Haurra beti egoten da jolaserako prest eta itsasuntzian sartu eta Frantzia aldera ihesean joan zirenean ere haurrek aurkitzen zuten entretenimendurik: “Emakumeak, haurrak eta 2 agure zeuden. Barku ingelesa zen, aldamen batean, Gurutze Gorriaren ikurrarekin. Kapitainarengana igotzen ginen, gora eta behera ibiltzen ginen...”.

tzen zituzten, fusilatu, Ondarretako hondartzan uzten zituzten, marea gora zetorrenean urak eramaten zituen”.

Santoñako kartzelan ere egon zen, Asturiasen harrapatu baitzuten. “Kartzelatik ihes egin zuten eta Mioñora igeri joan ziren. 4-5 kilome-

tro ziren. Baina iristerako harrapatu egin zituzten. Berriz ere Santoñara eraman zuten. Santoñatik, Ondarretara”.

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

GUKlan
BAINUKO OSAGIAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA

'Beasain: gau odoltsua, 1936ko uztailak 27-28'

Artikulu hau Juan Jose Garcia Urcelayetak Iparraldeko Ikuska aldizkariaren 3. zenbakian argitaratutakoaren laburpena da. Juan Jose Garcia Urcelayeta Berastegin jaio bazen ere txiki txikitatik Beasainen bizi zen. Aita Zamorakoa, eta guardia zibila zuen eta ama euskalduna. Honela kontatu zuen 1936ko uztailaren 27tik 28rako gauean Beasainen gertatutakoa.

(...) 26-a, Santa Ana eguna, ondoko Villafranca de Oria herriko patroia, ez zen festarik ospatu Nafarroatik zetozen tropak, altxatuak, gerturazten ari zirenen zurrumurrua zela eta.

Aipatutako egun horretako arratsaldean, gogorazten naiz, tren geltokitik gertu geneukan baratzerak lagundu niola nire aitari, jateko oilo eta konejuren bat ekartzeko asmoz, hurrengo egunetarako zerbaiten beldurra zegoelako, izan ere militar altxatuak dagoeneko Olaberrin zeudela zioten zurrumurruek.

Egia zen, arratsaldeko zazpiak eta erdi inguruan, gure baratzean, danbateko bat entzun eta Geltokiko kable elektrikoak mugitu zituen. Nire aitak esan zuen orduan. "Hemen dira, goazen bizkor etxera" eta betarik gabe, koneju eta oilo pareare hartuta, baratzetik atera ginen, bigarren kanoikada batek kableak eta tresnak bota zituenean.

Tropen sarrera Beasainen

Gau hartan nobedaderik gabe afaldu genuen eta ohera joan ginen; baina hurrengo eguneko goizeko seiak eta erdietan gutxi gorabehera, tirote handi baten hotsak esnatu ninduen, eskupeta, fusil eta metrailadoreen hotsak, baita kanoikada ba-

tzuen danbatekoak ere. Nire aitak, zuhurra bera, leihotara eta balkoiara ez gerturatzeko agindu zigun eta geroago leihotetan koltxoiak jarri zituzten, aztoratutako auzoan, bala bat leiho batetik sartu zela esaten baitzen.

(...)Arratsaldeko lauetan kanpoan tiro hotsik entzuten ez zenez, kontu handiz eta lehenengo makurtuta leihora hurbildu ginen eta zenbait etxetan eta udal-txean bandera txuriak zuek jarrita ikusi genuen. Garai hartan Iraola konfiteria zen etxea baino urrutirago, Paco Bueno argazki dendan, eta abar (gaur egun Tejidos Roman, Urialde Etxea, Maite Alzariak eta abar), dauden etxean, ke ugari ateratzen zen, teila-tuetan sua zegoen eta.

Egoera ikusita, eta arrisurik egon zitekeenaren ezjakintasunean, albistean bila kalera nindoala esan nion aitari. Nire aitak onartu egin zuen eta bitartean Makina Biltegiko Nagusiari (gaur RENFE) ohar txiki bat emateko esan zidan, gaueko zerbitzura ez zela joan esateko gaixo zegoela-eta, Zinpeko Zaintzailea (Guarda Juru-tua) zen. Poltsikoan sartu nuen oharra eta kalera atera nintzen. Jaka eta praka beltzak nituen jantzita, nire ama hil berria zen eta.

1936ko uztailaren 27



*Pablo Cayuela
Teniente
Koronela, bere
agindupean
sartu ziren
Beasainen
altxamenduko
indarrak.*

hartako arratsaldeko lauak eta erdi inguru izango ziren, inon geratu gabe eta espaloietan nindoala, aurretik aipatu ditudan eraikinak sustan ikusi nituen. Elkarri itsatsitako hiru etxe ziren eta ondotik pasatzean beraien teilatuak eta goiko pisuak erreta ikusi nituen. Suteen aurkako bonbak lan eta lan zeuden Suhiltzaile Zerbitzuekin eta sua itzaltzen ari ziren beste hainbat pertsonekin.

Ez nintzen gelditu eta nire ibilbidea jarraitu nuen, eta Ubi baserria deitutakoaren parean, trenbideko langileentzat zeuden 'etxebizitza etxetxoak' zeuden, militar batzuk kanoitxo baten ondoan zeuden, gero jakin nuen 'morteroak' zutela izena; militar horien artean sargento bat zegoen.

Ez ikusiarena eginez nindoala, ez nintzen konturatu espalo berdinetik nire parean beste militar batzuk zetozela. Iritsi zirenean harrituta gelditu nintzen berrietako batek, mahukaburuan eta txanoan, zortzi puntako bi izar zituela ikusita, bere pistolarekin bularean apuntatuz esan zidan: - "Zure arma". Eta erantzun nion:

- "Ez daukat armarik". Baina militarrek berriz errepikatu zidan: - "Zure arma". Nik berriz erantzun nion:

- "Ez daukat armarik, nagusiarengana noa..."

Eta jarraitzen utzi gabe galdetu zidan:

- "Ze nagusi?"

- "Geltokikoa" esan nion, eta urduri samar poltsikotik, nire aitak idatzitako oharra atera eta eman egin nion, eta militarrek irakurri esan zidan:

- "Hor, atxilotuta" eta mortero txikia non zegoen seinatu zidan, zeinaren ondoan sargentoa eta hainbat militar zeuden.

Ordubete pasatu zen eta gero beste bat eta nik leku berean jarraitzen nuen berrietan: ez nengoan oso kezkatuta, eta sargentoari galdetu nion. "Beno, eta zer egiten dut hemen?"

- "Teniente Koronelak agindu du hemen egoteko eta ezin dizut ezer esan" erantzun zidan.

Beharbada beste ordu erdi bat pasatu zen, CAFeko anagrama itsatsita zeramaten uniforme grisdu bi Guardia zetozela ikusi nitueanean, Uribe eta Alvarez herrietarrak ziren, zeinak soldaduak zainduta pasatu ziren. Sargentoak esan zien:

- "Nora daramatzazue horiek?". Eta batek erantzun zion:

- "Atxilotuta, Geltokiko aretorea".

- "Ba, hau ere eramanezazue". Eta sargentoak ni seinatu ninduen.

“Etxe txiki” horietatik pasatzean, lurrean soldadu bat ikusi nuen baztertuta, hilda.

Gero, Geltokira iristera-koan, garai hartan Geltokiko Nagusi Sailean sartu gintuzten. Barruan trenbideko langile bat eta hainbat herritar ikusi nituen, eta baita mahukaburuan sei puntako izarra zeukan militar bat eta gerreraren gainetik lan-jantzi urdina jantzita zuen beste militar bat ere.

Pixkanaka-pixkanaka ezagun gehiago iristen ari ziren eta guztira 16 lagun elkartu ginen, horien artean, gure herriko Zirkulo Karlistako Presidentea zen Andres Izagirre, Guillermo Ugarte, Epifanio Argiñano, Matias Alvarez, Uribe, Quintas, ‘El Farro’ gaitzizena zuena, ‘El Pajarero’, Marcelo Vergara, San Martin, gaur San Migel klinika den atzean zegoen etxe txurian bizi zen ustez Gallego abizena zuen trenbideko langilea, bi militar eta ni, gogoratzen ez naizen beste hainbat ere bai.

Andres Izagirrek, denbora asko pasatzen ari zela ikusita eta inori ateratzen ez zigutela ikusita, gure arteko tertuliatan bere kasua irribarez kontatzen zuen: “Kontua da, On Pedro Mokoroa (gure parrokiako apaiza) honekin zetorren (‘Pajarero’ gaitzizena zuena seinالاتu zuen), atxilotu egin zuten eta, ez zuela ezer egin esateko, eta nik esan nion bera ez joateko, ni joango nintzela, eta nire kontu uzteko, eta orain kontua da ni ere ezin naizela atera”.

Epifanio Argiñano eta Quintas ere kejavu egin ziren:

- “Gu, miliziano gorriek kartzelara sartu, atera eta orain hauek atxilotzen gaituzte”.

Guillermo Ugartere egin zuen bere atxilotetari buruzko aipamena:

- “Soldadu batzuei esan diet kontuz ibiltzeko Hunolt Tinta lantegi inguruan auto



Beasain militarren esku erori ondoren, artilleria errepublikarra CAF ireki ez zedin saiatu zen kalteren batzuk eraginez.

bat sutan zegoelako, eta horregatik atxilotu egin nauten”.

CAFeko Guardak ere antzera atxilotu zituzten, Uribe bere etxea erre zutela kexatu zelako.

Gurekin zeuden bi militar izan ezik, beraien esanetan Gasteiz aldetik kamioian zetozela atxilotuak, gainerako guztiak hemengoak ginen, Beasaingoak, eta guztiak inongo delitu komun edo politikorik gabeko pertsonak bezala ezagutzen ginen, are gehiago, gero jakin nuen Andres Izagirre, hau da, Zirkulo Karlistako Presidentea, pozik zegoela indar militarrek herrian sartu zirelako eta beraiei harategian zeukan haragia eskaini zien.

Epifanio Argiñano eta Quintas partidu eskuindarrekoak ere harrituta zeuden beraien atxilotetarekin. Guillermo Ugartere dagokionean Primo de Riveraren diktaduran bi urtez zinegotzia izana, ez dut inongo zalantzarik Erregimen monar-

kikoaren aldekoa izaten jarraituko zuela.

Gainerakoei buruz ezer gutxi edo ezer ezin nezake esan, baina lehen esan dudan bezala, bagenekien han barruan geundenatik inork ez zuela joera politikoko ezkeriarrik. Atxilotuetan gazteena Marcelo Vergara izango zen, edo agian ni, 18 urterekin.

(...) Gaueko hamarrak izango ziren zentinelak aho-tsa altxatu zuenean:

- “Ea, aurretik milizianoekin kartzelan egon diren bi horriek, etor daitezela”.

Argiñano eta Quintas aurreratu egin ziren eta atera egin ziren, eta handik gutxira fusil banarekin zeuden, eta Izagirrek esan zion Argiñanori:

- “Aizu, Epifanio, badakizunik...”. Argiñanok argumetatu zuen.

- “Ikusten duzu, momentu honetan ezin dut ezer egin”. Eta aretotik alde egin zuen.

(...)- “Zer gertatzen zaizu zuri? Gallego trenbideko

langileak erantzun zuen:

- “Ezer ez, zorabio txiki bat”.

Eta ahots militarra berriz entzun sententzia emanez:

- “Gutxi iraungo dizu, fusilatuak izango zarete eta”.

Eta ahotsa altxatuz agindu zuen:

- “Sokak!”.

Jaramonik egin ez ziela uste zuenez, berriz oihu egin zuen:

- “Sokak esan dut!”.

Handik gutxira soldadu bat soka luze batekin azaldu zen eta zatitan moztan joan zen. ‘Pajarero’ kexatu zuen:

- “Nik ez dut ezer egin. Zazpi seme-alaben aita naiz”.

- “Ixilik edo tiro bat emango dizut”.

Guillermo Ugartere eskuak atzean lotzera etorri zitzaizkionean, honek esan zien:

- “Mediku baten aita naiz”.

Beste militarretariko bati entzun zitzaion esaten:

- “Zu, mediku baten aita?, ba zu lehenengo”.

Eta horrela, gure pelotariaren buruan joan zen.

Ni ere lotu ninduten eta banan-banan ilaran jarrita joan ginen geltokitik, bidez, Ormaiztegira bidean. Kable elektrikoak puskatuta zuedenez, herrian ez zegoen argirik. Kamioi bat argiak piztuta, gure atzetik etorri zen. Ilara formatuak: bi bazterretan eskuan fusil bana zuten soldaduak.

Gogoratzen naiz ‘Azpeitia familiaren txalet’ parera iritsi ginenean, zutabetik pixka bat desbideratu nintzela ihes egiteko asmoarekin, baina soldadu baten ahotsak beldurtu ninduen:

- “Jarraitu ondo ilaran”.

Uste nuen, hilerria izango zela hilko gintuzten lekua, baina leku hau atzean gelditu zen eta aurrera jarraitu genuen, ‘Matias Enea’ edo ‘Zapatari’ deitutako etxera iritsiz. Hantxe bertan, errepedean, gelditzeko agindua eman ziguten.

Etxera sartu aurretik

Gau hartan nobedaderik gabe afaldu eta ohera joan ginen; baina hurrengo goizean tiroteko handi baten hotsak esnatu ninduen.

atetxo bat zegoen lorategira edo baratzerantz sartzeko. Teniente Koronela iritsi eta esan zuen:

- "Banan-banan pasatzen joan".

Atea pasatu genuen, zenbait eskalo i go genituen lorategira iritsi eta etxeko atara iristeko. Han goiko solairuetara igotzeko eskailetatik gertu bestibulo antzeko bat zegoen eta leku horretatik sei puntako hiru izar zeramatzan beste militar batetik, sententzia eman zigun: - "Hiru arma ekartzen dituen libre geldituko da, beste la fusilatua izango da".

Ilarako lehenengoak, Guillermo Ugartek, erantzun zuen:

- "Nik ez daukat armarik, ez eta inoiz eduki ere".

Kapitainak erantzuna jakin zuenean, esan zion:

- "Ongi, hemen... " eta bestibuluaren alde bat seinatu zuen.

Gero besteen erantzunak eskatu zituen eta denek gauza bera esaten zuten gutxi gorabehera, eta lehenengoaren leku berean gelditzen ziren.

CAFeko Guardaren, Matias Alvarezen txanda iritsi zen eta esan zion:

- "Nik ez dut armarik eduki, baina...".

- "Bai ala ez" galdetu zion militarrek.

- "Beno bai". Erantzun zuen Alvarezek.

Gurekin atxilotuta etorri ziren bi militarrei Kapitainak ez zien ezer esan eta armarik ekarri ezin zezaketenen aldean jarri zituzten. Alvarezen aurpegian fijas nintzen, bere itxura zurrin eta aurpegi txuriarekin, jantzitako estatua bat zirudien.

Nire txanda iritsi zen, Kapitainaren galdera berdinarekin.

Makina Biltegiko Zinpeko Zaintzailea izateagatik nire aitak eramaten zuen trenbide Zerbitzuko 'Karabina'-z gogoratzen nintzen. Baita ere gogoratzen nintzen nire aitak 'Tambor' ize-



Gaua iritsi arte Beasaingo tren geltoki zabarrean eduki zituzten atxilotuak. Arg.: Josetxo Zufiaurre.

neko errebolbera zuela Guardia Zibila izan zen garaiakoa. Berdin gogoratzen nintzen nire anai Arturok pistolaren bat bidali izan diotela opari, liburu baten errekuadroan sartuta eta horregatik guztiagatik nik erantzun nuen: - "Ez dut armarik eduki baina..." eta zalantza egin nuen.

- "Bai ala ez?". Ohartarazi zidan Kapitainak.

- "Beno, bai". Esan nuen, eta Matias Alvarezen ondora bidali ninduen.

Gainerakoak berriz ere ilaran jarri arazi zituzten. Ez dakit taldeko aitortzarik eman zitzaie. (...) Ni eta Alvarez etxeko garbiketa lekua dagoen lekuan sartu baigintuzten. Handik gutxira, tiroen errafagak, metrailadoreenak ere bai, bestibuloan argitasuna nabarmentzen zen eta handik gutxira dena ixiltasunean geratu zen.

Garbitegian sartu aurretik Kapitainak esan zigun Alvarez eta niri:

- "Orain armen bila joango zarete".

Alvarezek botu zuen:

- "Begira jauna, oso berandu da eta ezin ditut berehala lortu.

- "Ongi", esan zuen militarrek "Bihar lehenengo orduan joango zarete armen bila".

(...) Garbitegirako sarreara ondotik gizon bat ateratzen ikusi nuen, hiltzeko eskatzen zuen eta Florencio Mendiaren aita zela iruditu zitzaidan, Barrendain base-rikkoa. Gehiago ez da berataz ezer gehiago jakin. (Fusilatua).

Kapitaina garbitegira sartu zenean, esan zigun:

- "Hiru arma ekarri behar dituzue".

Garbitegiko eskailerak jaisterakoan beste bi pertsona ezagun ikusi nituen. Bata, farmazeutiko altu eta ilehoria, Sagarminagako farmazian lan egiten zuena, eta bestea bere semearen zortegatik negar zotinka: Paulino Paredesen ama zen.

Farmazeutikoak besoak zabaldua zituen, itxuraz otoitz egiten.

(...) Berriz diot, denak amesgaiztoa zirudiela, amets bat, baina benetan gertatu zen amets tragikoa.

Uztailaren 28ko goizaldeko ordu bata eta erdia izango zen gutxi gorabehera. Ordu erdi lehenago metrailadora tiroak eta errafagak entzun nituen, zorigaitzoan izandako lagunak hil egin zituztela ulertu nuen.

Nik lotuta jarraitzen nuen Matias Alvarez Guardak bezala, eta askatzeko ahalegina egin nuen eta lortu egin nuen, soka pixkanaka askatzen joan baitzen eta askatu gabe korapiloa lurre-ra erori zen. Gertaera honek nire bizitza jokoan jarri izan zezakeen, handik gutxira soldadu bat etorri baitzen.

- "Eskuak askatzeko eskatu didan hori eta bestea, gerturatu daitezela". Matias Alvarez gerturatu egin zen eta soka askatu zion.

- "Ea beste hori" altxatu zuen ahotsa soldaduak.

Beldurrez gerturatu nintzen eta soka askatu eta lurrera erori zitzaidala esan nion. Soldaduak besterik gabe, ostikada bat eman zidan Alvarez kideak bezala garbitegian sartuta jarraitu nuen.

Handik aurrera milaka pentsamendu etorri zitzaizkidan burura gela haren iluntasunean. Herritar haien hilketaren ikuskizun iluna ikusten nuen, ordubete lehenago Geltokiko Nagusiaren Bulegoan bilduta egon ginena.

Ihes egiteko modua nire pentsamentuan sartzen zen. Baina lehenengo handik ateratzen behar zen, armatutako zaintzalea atean zegoela, eta ez nekien nola egin. Gainera hiru arma aurkitu nitzakeen, baina bost ezinezkoak ziren.

Ihes egiteko tentaldien barruan etxera joan eta teilatutik ihes egitea zen, nire-

Handik gutxira, tiroen errafagak, metrailadoreenak ere bai, bestibuloan argitasuna nabarmentzen zen eta handik gutxira ixiltasunean geratu zen.

tzat ia ezinezkoa, baina momentu hartan denean pentsatzen da. Buruan bueltak eta bueltak eman, baina ez nuen bost arma biltzeko modurik aurkitzen, ez eta ihes egitekorik ere.

(...) Barruan geunden inork ez zuen hizketarik egiten, ez eta keجاتu ere, Paulino Paredesen amaren negar zotinak bakarrik entzuten ziren. Gainerakoan erabateko ixiltasuna zen nagusi gure areto ilunean, kanpoan ez zen horrelakorik, marmarrak eta arma baten eta bestearen tiroak entzun zitezkeen tarteka.

Beste herritar bat ekarri zuten 'El huevero' gaitzizena zuena: bera abizena Cuñado zen.

Goizeko bostak eta eguna argitzen hasi zen eta usate dut seiak izango zirela erabakia hartu nuenean. Ordurako idatzia neukan epitafio tragikoa garbitegiko paretan poltsikoan neraman arkatzarekin: 'Juan Jose Garcia Urcelayeta, 1936ko uztailaren 27an fusilatua', eta laukian sartu nuen.

Gero dena jokatzeari pentsatua nuen eta Kapitainaren aurrean aurkeztu eta beraiekin errolatuko nintzela esatea pentsatu nuen. Eta besterik gabe egunaren argitasunarekin gauzak hobeto ikusten zirenez, iturria ireki, aurpegia garbitu eta mukizapiarekin lehortu nuen. Gero orraztu egin nintzen, ez naiz gogoratzen orraziarekin edo behatzekin orraztu nintzen, eta honela zaintzailearengana joan eta galdetu nion:

- "Kapitaina hemen al dago? Berarekin hitz egin nahiko nuke"

Zaintzaileak erantzun zidan:

- "Ez da oraindik etorri".

- "Ba, mesedez etortzen denean berarekin hitz egin nahi nuke". Esan nion, eta garbitegian sartu nintzen berriz ere.

Zortziak izango ziren deitu zidatenean eta etxeko



Zapatari etxean izan ziren fusilaketak.
Arg.: Josetxo Zufiaurre.

goiko pisuetara igotzeko eskailera aldera atera nintzen eta aurrean Kapitainarekin topo egin nuen. Nik azaldu nion:

- "Begira, nire aitak 'Karabina' bat dauka, tren geltokiko Zinpeko Zaintzaile bezala lan egiten baitu, eta zuekin errolatu naiteke". Eta Kapitainak erantzun zidan: - "Badakizu zer esan nizun atzo, ekarri iezaizkidazu 'Karabina' hori eta armak. Gero ikusiko dugu. Orain bi soldaduk lagunduko dizute".

(...) Geroxeago bi gazte uniformatu etorri ziren, bat kaki kolorez txapel gorriarekin eta bestea urdinez, txano urdinarekin, armatuak.

Etxeko lorategitik atera nintzen eta harrizko eskailek jaisterakoan errepidean eta lurrean urarekin erregadiatutako odol putzuak ikusi nituen. Nire kideen ondola zen. Odol errugabea, krudelkeria ankerrenean hildakoak. Inmolatutako gorpuen odola, ez altxatutako miliatarren justiziagatik, Franco, Mola, eta abarren goi agintarien pean, baizik eta odolzale krudel batek, tragedia odoltsu eta injustuaren arduradun nagusiagatik, hiltzeko desioa duten jendea, lagunak edo arerioak diren jakin gabe.

(...) Eta banindoan oinez, bi gazte armatuk la-

gunduta, zeinen jantziak ezezagunak zitzaizkidan, nahiz eta egun batzuk beranduago jakin nuen uniformak Erreketeenak eta Falangistenak zirela.

(...)Nire etxeko sukaldera sartu nintzenean egunsenti hartan gertatu zen kontatu nien eta nirekin zegoen Guillermo Ugarte hil egin zutela esan nien, nire arreba Maria Luisak ezin zuen sinestu, bere alabei azaldu zinez Olaberrira gaitxo eraman zutela esan baitzuen. Nik desengainatu egin nituen eta nire anaiari eta arrebari esan nien, eskatutako armarik eramaten ez banu, nirekin ere ezin izango zutela kontatu.

Nire anaia estuasunean zegoen edo hobeto esanda, konpromisoan jarri nuen. Nola eman behar zidan bere pistola, eta gero bera atxilotzen bazuten?

Nire aitaz galdetu nuen eta Urteaga Hotelean osatu zuten Junta Militarera joan zela esan zidaten audientzia eskatzera, nitaz zerbait jakin nahian. Etxean zegoen nire anaia Antonio arduratu zen aitari abisatu eta berehala etortzea komeni zela esateaz.

Gogoratzen naiz pasatutako tragediaren ondotik ere jateko gogoia neukala, aurreko eguneko arratsaldetik bokadurik jan gabe bainengoen, gau odoltsu har-

tan soldaduak emandako sagardoa edanda bakarrik. Nire arrebak ohiko gosaria prestatu zidan, kafesne katilukada ogiarekin eta ez nuen ezertxo ere utzi. Ametsetan jarraitzen nuela zirudien eta nire inguruan gertatzen zen guztia ametsaren zati zela.

(...)Nire aita etxera etorri zenean, abisuaren momentuan bertan zegokiola nire berri jakiteko eskatutako audientziaren txanda. Nik esan nion zer gertatzen ari zen eta besterik gabe Urteaga Hotelera bidean abiatu ginen, Erreketete eta Falangista uniformatu gazteek la-

gunduta. Hotelera iritsita nire aita barrura sartu eta handik gutxira Teniente Coronela atera zen, zeinak ikusi eta ezagutu egin ninduen, eta esan zidan:

- "Bai, mutil hau nik atxilotu dut. Aske gelditzen zara!" Baina nire zaintzaileek esan zien:

- "Baeza Kapitainak esan digu armekin eta armarik berriz eramateko". Teniente Koronelak erantzun zien: - "Esan iezaiozue, Armadako nagusiaren partetik, gazte hau aske gelditzen dela". Jarraian nire aitari zuzendu zitzaion.

- "Eta zu oraintxe bertan Zerbitzura, Kortazar Kapitainak berehala berriz osatu nahi ditu eta".

Horrela askatu zen nire gorputza heriotzetik eta bizitza artifiziala sartu zen bertan, izan ere etxera iritsi eta nire logelan babestu nintzen, oheak sonanbulismo egoeran hartu ninduen, nire pentsamenduek behin eta berriz aurreko gaua gogora arazten zidaten.

(...) Bai, destinoak bereak egin zituen Teniente Koronel haren bidez, geroago jakin nuen Pablo Cayuela zuela izena eta Kapitainak Beaza zuela abizena.

Juan Jose Garcia Urcelayeta
(Antzinako Guardia Zibil oh
baten semea)

Kanpineko eta kontrakteko altzariak, Legorretatik Europara

*Juan Jose Aranzadi,
Eredu kooperatibako kanpin arloko komertziala*

Uda parte honetan hainbestetan erabiltzen ditugun kanpineko mahaiak, aulkiak, hamakak... Goierri bertan egiten dira: Legorretako Eredu kooperatiban. Dena den, kanpineko eta lorategietako altzariak ez dira Eredun egiten dituzten bakarrak: 'kontrakt' deritzen merkaturako diseinuzko altzariak ere egiten dituzte, Enea markarekin saltzen

direnak. Hau da, bulegoak, auditorioak, ostalaritza, itxaron gelak, bankuak eta abarretako altzariak. 1963an sortu zen Eredu kooperatiba. Une honetan, 104 langilek eta 76 kooperatibistek osatzen dute Eredu. Kanpineko altzarien erakuslekuan egin dugu tertuliatxoa Juan Jose Aranzadi arlo honetako komertzialarekin. Nola ez, kanpineko aulkian eserita.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guzietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Kanpineko materialaren erosketan, denboraldi bete-betean gaude. Zuentzat noiz izaten da denboraldi gorena?

Guretzat martxo izaten da gorenena. Merkatuan orain fuerte saltzen diren produktuak aurretik prestatu behar izaten dira. Barruko merkaturan, Espainiar estatuan, martxoan hasten gara produktuak bidaltzen. Gero zerbitzen jarraitzen dugu. Ekaina eta uztaila garrantzitsuak dira guretzat. Esportazioan, gauzak aurrez egiten dira. Otsaila eta martxo izaten dira hilabete indartsuenak. Beraz, martxoan, denak elkartzen dira, bai merkatu nazionalakoa eta bai esportaziokoa.

Aukera zabala daukaguz.

Saiatzeko gara denetik edukitzen. Produktu handitik, balanzinak... gauza bakoitzean modelo ezberdinak daukagu. Merkeagoak, garestiagoak, produktu hobekak, kalitatezkoak... Denetik eduki beharra dago. Hamakak, akoltxatu gehiago ala gutxiagorekin; tubo ezberdinak, gehiago ala gutxiago etzaten direnak...

Zein material erabiltzen duzue?

Parte handi bat altzairuan egiten da baina aluminioa gero eta gehiago ari da sartzen. Altzairuan lan gehiago egiten da, prezioan merkeago ateratzen delako. Baina azkeneko urteetan aluminioak gora egin du eta momentu honetan oso ondo ari da saltzen. Aluminioa arinagoa da eta kanpoan uzteko aproposagoa da, ez delako erdoiltzen. Altzairuzko produktuak ere pintura tratamendu berezia emanda saltzen ditugu.



Alemaniko azoka

Urtean behin, aurten irailaren 3tik 5era, Alemaniako Colonia hirian kanpineko altzarien azoka berezia egiten da. Juan Jose Aranzadi hantxe izaten da, hurrengo denboraldia lotzen. "Europa mailan dagoen azoka garrantzitsua da, eta gaur egun gelditzen den barrenetarikoa. Duela urte batzuk, herrialde bakoitzak bere azoka zeukan, baina orain ez dago horrelakorik", zehaztu du Aranzadik.

Produktu berriak aurkezteaz gain, bezeroekin harremanak izateko aprobetxatzen dute azoka. "Diseinu eta tela berriak aurkezten ditugu. Urtero telen koloreak aldatu egiten ditugu normalean. Produktu berriak badaude ere, bertan aurkezten dira".

Kontrakteko altzarien arloan ere Colonian bertan, bi urtean behin, urrian, beste azoka bat egiten da. Bartzelonan ere egiten da beste bat; hau ere bi urtean behin.

Oihalak ere ezberdinak erabiltzen dituzue. Koloreak ere bai.

Telatan ere kalitate ezberdinak daukagu. Nylona, material merkeena, akoltxatuak, textiline... Azken honetako zulo txikiak ditu, izerdia pasatzen uzten du eta bustita eseriz gero ere, lehenago lehortzen da. Kalitate oneko tela da eta normalean serie altuxeagoko produktuetan sartzen dugu.

Koloreetan ere aukera handia dago. Askok saiatzen

gara telak politak izan daitezten, azken batean, normalean, jendeari begietatik asko sartzen zaio-eta. Tuboak normalean, txuriz, urdinez, berdez edo grises margotzen ditugu eta telak kolore horietara moldatzen saiatzen gara.

Azkenaldian familia bakarrek etxeak, lorategiekin, gehiago egiten ari dira. Horrek eraginik ba al du zuengan?

Balanzinen salmenta adibidez, goraka doa. Hor gerta-

tzen dena da, lehenengo oso balantzin merkea erosi duenak, bigarrenengoan produktu hobea bilatuko duela. Azkeneko urteetan jendea produktu hobexegoa eskatzen hasita dago. Hori hemen, baina Frantzia eta Europa aldean beti egon dira etxe txikiak, eta joera berekoak dira.

Kanpineko eta lorategietako altzariak nora espordatzen dituzue?

Normalean Europara espordatzen ditugu kanpineko eta



kutxa

Enea, kontrakteko diseinuzko altzariak

Legorretako Eredu kooperatiban, kanpinen altzariak gain, kontrakteko diseinuzko altzariak ere egiten dituzte. Azken hauek, munduko herrialde ezberdin gehiagotara esportatzen dira: Europara, Amerikako Estatu Batuetara, Asiara, Zelanda Berrira... Aranzadik, Enea aulkiak dauden hainbat leku jarri ditu adibidetzat: Kursaallean, Euskalduna jauregian, Arantzazuko Gandiaga Zentroan, Euskadiko Kutzan, Eroski Bidaiak bulegoetan, Goierriko hainbat kultur etxe eta udaletxetan, Parisko Liburutegi Nazionalan, Galiziako monasterio batean...

Diseinuzko altzariak

Bi mundu ezberdin dira bi altzari motak. Enearen kasuan, diseinatzaile profesionalen lan egiten dute, Josep Lluscá eta Teixidó katalanak dira gure diseinatzaileak. "Altzari munduan oso ezaguna", azpimarratu



du. Produktzioan ezberdintasunik ez badaukate ere, komertzialak, arlo bakoitzak bereak ditu.

Diseinu modernoko altzariak egiten ditu Enea markak. "Aulkietan adibidez erosoan izan dadila bilatzen da, ondo sentitzea. Hor ere bukaera ezberdina daude. Material eta te-

la ezberdinekin bukatzen dira. Plastikorekin ere lana egiten da. Koloreetan ere aukera zabala dago. Bezeroak nahi duena bilatzen saiatzen zara, bai koloretan eta bai formetan".

Zain egon beharreko lekuetarako, bata besteari lotutako aulkiak ere egiten dituzte.

lorategiko altzariak. Frantziara, Portugalara, Belgikara, Holandara, Alemaniara, Suediara, Noruegara, Ingalaterrara, Italiara, Suizara... normalean, inguruko nazioak.

Eta Enea, kontrakt-eko altzariak?

Beste mundu bat da. Egia

da guk fabrikatzeko garaian, bietan ere, tuboekin lan egiten dugula, aluminioarekin eta altzairuarekin. Teknika aldetik, esan liteke, gauza batzuk osagarriak direla. Baina merkatuak ez dauka inolako zerikusirik. Kanpinenokan, normalean,

serie luzeak, handiak egiten dira, eta merkeak; bezeroak ere konzentratuak dira, batez ere hipermerkatu handiak. Kontrakt-eko altzarietan, bezeroak askoz ere txikiagoak dira, kalitate mailan askoz ere hobekiak, esijentzia handiagorekin. Batak bes-

Kontrakt-eko diseinuzko altzariak ere merkaturatzen ditu Eredu kooperatibak, Enea markarekin.


tearekin zerikusirik ez dauka.

Non daukaguz konpetentziarik handiena?

Enearekin gertatzen dena da, guk modelo bat produzitzen dugula eta merkaturatzen ez dagoela beste inon. Diseinua berezia eta bakoitzak berea dauka.

Urte asko daramazue kanpinen altzariak egiten. Aldaketak izango ziren, ezta?

Askok aldatu da. Orain dela 30 bat urteko katalogoren bat ikusi besterik ez dago. Alde batetik, telak oso ezberdinak dira. Tuboen koloreak, antzekoak dira baina gehiago ere sartu dira. Lehen egurrezkoak asko ikusten ziren, orain batera ez. Lehen ere altzairua erabiltzen zen gehien baina orain tubo forma gehiago erabiltzen dira. Garai batean tubo karratuak erabiltzen ziren eta orain ez... Itxura poliki-poliki aldatzen joan da eta



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako sukaldeak



Arlo honetan ere hasi da Asiako kompetentzia nabaritzen.

kalitate estandar berrietara ere egokitu egin behar da. Orain dela 20 urte, aulkia ez puskatzea eskatzen zen; gaur egun, kontrol batzuk jarraitu beharra dago, eta zentzu horretan aldatu egin da. Beti egokitzen joan beharra dago, merkatura eta merkatuak eskatzen duenera.

Alemanian izaten den azokara joaten zarete. Herrialde batetik bestera ezberdintasun handia al dago kanpinen altzarrietan?

Batzuetan zein produktu saltzen den eta beste batzuetan zein kolore saltzen den aldatzen da. Ezberdintasun batzuk, hegoaldeko iparraldera ere badaude. Iparraldean normalean, kolore suabeagoak hartzen dituzte, eta zenbat eta hegoalderago tira, orduan eta kolore fuertagoak. Produktuan bertan ere, ezberdintasunak egoten dira nazio batetik bestera. Frantziatik hona ez, baina adibidez Ingalaterran adibidez, hemen baino askoz ere produktu gutxiago dituzte aukeran. Hemen aukera zabalagoa da.

Asiako kompetentzia iritsi al da zuen merkatura?

Nabaritzen hasi da. Egia da Txina oso indartsu dagoela, asko hazten ari dela. Baita ere egia da, azkeneko urte-etakoko euroaren eta dolarren arteko trukeak ez digula lagundu. Orain dela urte batzuk kompetentzia handiena europarra zen bezala, momentu honetan, kanpin arloan, Txinaren kompetentzia nabaritzen hasi da.

Kontrakt-eko altzarrietan, merkatu ezberdina da eta ez da hainbeste nabaritzen. Kanpinetakoetan serieak handiagoak dira eta serie handiagotan errazagoa da. Kontraktekoetan, kantitate txikiagoetan lan egiten da eta diseinua gustatzen da ala ez da gustatzen. Baina diseinu hori beste inon ezin da erosi.

Baina pixkanaka-pixkanaka sektore guztietan sartzen ari dira eta kompetentzia handia izango da. Txinako produktuak ikusten hasi dira. Egia da kalitatea ezberdina dela, normalean txarragoa dela, baina prezioa faktore garrantzitsua da. Guk gama nahiko zabalera daukagu eta beraiek normalean hori ez dute. Txinan denetik dago, baina enpresa batek normalean ez du denetik egiten.

Urtetik urtera asko aldatzen dira salmentak?

Askok ez, baina aldatuz joan daiteke. Urte batean bezero bat irabazi ala gal dezakezu. Edo bezero berdinak, zenbat saldu dutenaren arabera, denboraldia motza edo luzea izan den, gehiago edo gutxiago erosiko du. Urte bat oso ona izan baldin bada, hurrengo normalean ez da hain ona izaten. Horrelako gora behera batzuk izaten dira, nahiz eta bezeroak eta prezioak mantendu.

Zuek ere eguraldiari begira gogoratu al zarete beraz. Garai honetan bai. Guretzat ekainan eta uztailean eguraldi ona egitea, hurrengo urteari begira garrantzitsua izaten da. Esportazioetan



1963an sortua

1963an sortu zen Eredu, Ikaztegieta. Geroxeago kokatu ziren Legorretan, Ola auzoan. "Lehenengo bi edo hiru urtetan beste produktu batzuekin ibili ziren, baina laster kanpinen produktuekin hasi ziren. Harrezkero, beti jarraitu izan du kanpinen produktuekin", Juan Jose Aranzadik zehaztu duenez.

Enea, kontrakteko altzarrietan orain dela 20-22 urte hasi ziren. "Kanpin arloak arazo bat dauka, denboraldiko produktua dela. Otsailetik uztailean lan asko izaten da baina ondoren, ia batere ez. Arazo horri irtenbidea emateko eta beste alde batetik beste produktu klase bat eta beste merkatu klase bat izatea ona delako pentsatzen dugulako, horregatik sortu zen Enea. Nik uste orain askoz ere indartsuagoak garea Enean", dio Aranzadik.

Kooperatiba

104 langile daude Eredu, horietatik 76 dira kooperatibistak.

Kooperatiba izan da beti Eredu, Aranzadik dioen bezala, "txarrerako eta onerako, denok gara nagusiak. Beste errealitate bat da Sociedad Anonimarekin alderatuta".

MCC (Mondragon Corporacion Cooperativa) barruan dago Eredu. Lagungarria dela dio Eredukoak: "Zerbitzu berriak egin behar dituzunean, enpresa ezberdinen artean gauzak ikusteko, elkarren esperientziatik ikasteko ondo dator MCC barruan egotea. Kanpora begirako proiektuak baldin badauzkazu, beste leku batetik informazioa jasotzeko edo beste leku batean inplantatzeko, zentzu horretan ere laguntza da".

Eredu atzerrira joateko asmorik ba ote duen galde-tu diogu Aranzadiri: "Oraingoz ez dugu pentsatu hor zehar inplantatzea. Eta momentuz hemendik mundu guztira zabaltzen ditugu gure produktuak. Eta ez dugu pentsatu oraingoz beste inon jartzerik".

normalean, apirilean edo martxoan bukatzen da urteko eskakizuna. Orduan, arriskua beraiek hartzen dute. Saldu ala ez saldu, eguraldiaren arabera salduko dute. Ez badute saltzen eta sobratu bazaie, badakizu

hurrengo urtean gutxiago eskatuko dutela. Eta dena saldu badute, badakizu hurrengo urtean gehiago eskatuko dutela. Orduan, garrantzitsua da kanpoan ere garai honetan eguraldi ona egitea.



Garia garai batean bezala

Badira 45 bat urte Seguran garirik ereiten ez dela. Nahiz eta baserriren batean, kapritxoz, lur zati batean erein. Joxe Insaustiri garia nola egiten zuten entzutean sortu zitzaien Erdi Aroko jaia antolatzen aritu den taldekoei garia berriro ere ereiteko gogoia. Honela Segurako adineko hainbat lagunekin egon dira garai haietako kontuak entzun eta jasotzen. Baita ere garia ereite, biltze, jotze eta beste hainbat lan direla-eta, zegoen hiztegi berezia bildu ere, “50 urtez beheko jendeak ezagutu ere egiten ez duen hiztegia da”, diote Rafa Berasategik eta Bixente Albisuk, proiektu honen bultzatzaileek. Beraiek azaldu digute, nolakoa zen garai batean gariaren prozesua, baita Seguran aurten nola egin duten ere. Argazkiak, berriz, Estitxu Imazenak dira.

Garai batean Segura denean ereiten zen garia, soro malkartxuetan bezalaxe Maduran. Herri inguruan ez zen belardirik, dena soroa. Belarretara edo garotara, mendira joan behar izaten zuten segurarrak. Etxeetan seme alaba asko izaten zirenez, asko beste etxeetara joaten ziren janaren truke garia ebakitzera edo laiarekin lurra prestatzera.

Fabriketan lanpostuak

sortzen hasi zirenean, jendeak garitik jai zuela ikusi eta ereiteari utzi zion. Kanpotik irina merkeago etortzen hasi zen eta gainera hemen eguraldiak ez zuen urtero ziurtasunik eskaintzen.

Lurra laiatu

Garia ereiten zen garaietako kontuak jasotzeaz gain, lanerako tresnake ere bildu dituzteko antolatzaileek. Se-



Zurgindegi

AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxa: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU
ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK



Alpe

SUKALDE ALTZARIAK



sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84





gurako baserrietan bildutako laiak erabili zituzten lurra irultzeko.

Garai batean egiten zen bezala, irailaren bukaeran hasi zuten prozesua. Larunbat batean egin zuten eta jende asko joan zen ikustera. “Guk irudikapen bat bakarrik egin genuen, aspaldi irauli gabe lurra eta oso lehorra eta gogorra zegoen”, dio Rafa Berasategik. Laia lur biguna zegoen lekuan erabiltzen zen eta, “gure kasuan esperientzi faltaz gain oso gogorra zegoen”. Lurra lantzen bukatzeko traktorearekin egin zuten lanik gogorrena.

Garia erein

Lurra prestatu ondoren, azarora arte itxaron behar izaten zen garia ereiteko. Eta horrelaxe egin zuten segurarrek Santu Guztien egunean, azaroak 1, erein zuten garia. Lurrean zabaldu ondoren, arearekin estali zuten.



Gaur egun bai Araban eta bai Nafarroan ereiten den gari mota hemen ereiten zenaren desberdina da; uzta biltzeko makinarekin lan egin ahal izateko buru handiagoa eta lasto motzagoa du. Goierrin duela 50

urte gari luzea ereiten zen, metrotik gorakoa. Gari mota hori Galizian lortu dute, modu zaharreko nekazaritzari eusten dioten inguru batean. “Gari mota hori erein dugu eta ikaragarrizko garia atera da. Nik Nafarro-

an inoiz ez dut horrelako garirik ikusi, ez luzean eta ez buruaren neurrian ere”, dio Berasategik.

Dena den bi gari motak erein dituzte Seguran, zein alde duten edo ikusi ahal izateko.





Segarekin garia ebakitzen hasi zirenean izugarriko aurrerapausua izan zen. Gaineko argazkian ikusten den bezala, segari eskuare moduko bat jartzen zaio, ebakitako garia ondo lerrotatuta geratzeko. Sortak egiteko garaian lan asko errazten du horrek.

Igitaiez ebaki

Aurretik gari guztia igitaierekin ebakitzen zuten, aldi-aldi esku-sorta bat hartuz.

“Pentsa ze lan gogorra izango zen”, dio Bixente Albusuk. Garia landare lehorra denez, igitai arruntarekin ezin da ebaki. Gaur eguero igitai denak belarra ebakitzeko daude prestatuta. Garia ebakitzekoak, landarea zerratu ahal izateko, horzadun igitaiak ziren. “Horrelako igitai zaharren bat bada, baina, hainbeste zorrotu ondoren hortzak janda dituzte”, azaldu digu Berasategik.

Hortzak desberdinak dituzte ezkerrarentzat edo eskuinarentzat eginda badira, hatzak babesteko zoketa izeneko tresna ere erabiltzen zuten. “Guk egin dugun sail txikiarentzat ez da beharrezkoa baina egun guztia eta egunero horretan ari zenak beharrezkoa zuen hatzak babestea”.

Segurarrak dokumentatuta aurkitu dute errementariak animalien hezurak erabiltzen zituztela igitaiak zo-

rozteko. Igitai horzduna normal zorrotuz gero, hortzak jan egiten zaizkio. Beraz, zerbait berezia behar zuten zorrotzu eta aldi berean forma mantenduko zutena. Hezur hauek ingude lana egiten zuten, bere gainean jarri eta zintzel txiki batekin igitaiari hortzak egiten joaten ziren hezurren marken gainean.

Honen inguruan pasadizo bat ere kontatu digu Berasategik: “Pedro Etxezarreta bertsolariaren aita 20 bat urterekin diru truke garia ebakitzea etorri zen Mendarotik. Hura ezkerria omen zen eta igitaiak alde bakarretik zorrotzuta egoten direnez, igitai berezia behar zuen. Pedrori esaten nion, ‘zuen etxean egon behar du ba igitai berezia’. Eta berak ezetz esaten zidan. Halako batean kirtenik gabeko igitai zahar bat ekarri zidan, besteekin alderatu nuen eta ezkerrekoa zen. Hura zen bere aita etorri zenean erabiltakoa”.

Seguran soro handiak ziren eta hura dena ebakitzeko kanpoko jendea etortzen zen. “Fernando Unsain musikariaren amaren aldeko aitona segurarra zen. Abesti bat abesten zuten, esanez bere Segurako aitona Kastillara garia ebakitzera joaten zela. Gaurko egunean ezinezkoa da pentsatzea nola joango ziren segurarrak Gaztelara jornamean garia ebakitzera. Hemen ohituta zeudelako joaten ziren eta handik hona ere etortzen ziren”, dio Albusuk.

Eguraldiaren menpe

Hemengo klimak ez du Nafarroan duen ziurtasunik. Garia heldu denean ebakitzen da erabat lehortu gabe, alea ahoan sartu eta ez du gogor gogorra egon behar. Ebakitzeak gariaren lehortzea azkartu egiten du. Ondoko heldu gabe ebaki eta eurria egiten badu, burua ireki eta alea erori egiten zaio. Hori ez gertatzeko, ebaki

sorta txikiak egin eta sorta hauekin metak egiten zituzten. “Lan handiak hartzen zituzten. Euri arriskua baze- goen meta handiak egiten zituzten gari guztia ez bus- titzeko. Eguraldi onarekin berriro metak desegin eta sorta guztiak lurrean guru- tzatuta alea goraka zutela jartzen zituzten, lehortzen. Egun guztia zerura begira egiten zuten”.

Herrira ekartzen zuten garia, berriz, etxe behetan edukitzen zuten eta egural- di onarekin sortak etxearen kontra zutik jarri eta eguz- kitara ateratzen zituzten.

Gari-jotzearen garrantzia

Auzolana izaten zen gari-jo- tzea. Urteko ogia hortik atera behar izaten zenez, urteko lanik garrantzitsue- netarikoa zen. Arbelezko harri txapal bat erabiltzen zen, azao edo gari sorta hor jotzen zen gari alea erortze- ko. Horretarako gariak le- hor-lehorra egon behar du, ikutu hutsarekin erortzeko moduan.

Garia kutxetan gorde- zen eta gari artean gaztak sartzen zituzten, or- duan hozgailurik ez zegoe- nez hobeto kontserbatzen zirelako.

Garia hartzen denean segituan ezin da ogia egin. Udazken edo negutik au- rretera hasiko ziren gari ho- rrekin ogia egiten. Beraz, negu aldean errotek lan handia izango zuten.



over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Gabiria

Andra Mari jaiak

Abuztuak 13, igandea:

Goiz eta arratsalde: Biribilketa baserriz baseri herriko txistulariekin.

Ondoren: Kontzertua: Descontrol, Milk Shake eta talde gehiago.

Abuztuak 14, astelehena:

18:00etan: Suziri eta kanpai jotzearekin batera, Goruntz dantza taldeko nagusiek eskainitako saioa.

Ondoren: 'III. Patata tortilla lehiaketa'.

22:00etan: Bertsolari jaialdia Parrokiko antzokian: Unai Iturriaga, Jon Maia, Sustrai Colina, Amaia Agirre, Aitzol Barandiaran eta Iban Urdangarin.

Ondoren: Eusko Disko goizaldera arte

Abuztuak 15, asteartea: Andra Mari eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: XV. Ormaiztegitik Gabiriarako igoera txirinduz herritarrentzat.

19:00etan: Herriko gazteen arteko herri kirolak.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketa.

Arratsalde eta gauean: Triki-zio musika taldearekin dantzaldia eta mozorro dantza goizalderarte.

01:00etan: Mozorro desfilea eta sari banaketa, herriko plazan.

Goizaldera: Baratzuri zopa Erbie elkartearen.

Abuztuak 16, asteazkena: San Roke eguna:

Goizeko 11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Goruntz dantza taldeko txikienen saioa.

17:00etan: umeentzako puzgarri eta parke erraldoia.

17:30etan: Ume jolasak eta mozorro dantza.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketa.

19:30etan: Sagardo eta txistor dastaketa.

Arratsalde eta gauean: 'Beste bat' taldearekin dantzaldia.

21:30ean: Koadrilen arteko afaria Ostatu jatetxean.

Goizaldera: Baratzuri zopa Osinalde elkartearen.

Abuztuak 17, osteguna: San Roke txiki eguna:

11:00etan: Meza nagusia, herrian hildakoen alde.

Ondoren: XV. Tiragoma txapelketa. Bola eta toka herritarrentzat.

19:00etan: Antzinako ohiturari jarraituz, ardo beltz banaketa herriko zagiardotik.

Arratsalde eta gauean: Joselu anaia taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

23:00etan: Suziri festa izugarria.

Abuztuak 18, ostirala:


17:00etan: Herria txukuntzea eta afari merienda.



Iñausti
Hertz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



mazda ☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN

Bikar, S. A.




Tel.:
943 887 048

Faxa:
943 882 801

Telleri z/g
ORMAIZTEGI

OSINALDE KARROZERIA

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

Goierrierra 24 euro
 hitza 60 euro
 Egin **bat** aukeratutako kaxan **Goierrierra** + **hitza** 65 euro

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: NAN:

Telefono zenbakiak:

Kontu zenbakia(20 digitu):

Bidali txartel hau: **Goierrierra, Urbialde plaza 7 behe, Beasain**

Zerain

Andra Mari jaiak

Abuztuak 13, igandea:

20:00etan: Ohiko gibel-jatea Liztormendi elkartearen.

Abuztuak 14, astelehena: Andra Mari bezpera:

11:00etan: Haurrentzat puzgarriak eta eskalada.

12:30ean: Zeraina igoera txirrinuz herriko haurrentzat.

17:00etan: Haurrentzat puzgarriak eta jolasak plazan.


Ondoren: Merienda eta buruhandiak.

20:00etan: Pregoia, suziriak eta kanpai-bueltakoak festei hasiera emateko.

Ondoren: Sagardo-edana eta txekor-jana. Txekorra egun guztian zehar burruntzian erretzen egongo da.

21:00etan: Erromeria 'Triki-Jazzband' taldearekin.

00:00etan: dantzaldia 'Tximeleta' taldearekin.



Abuztuak 15, asteartea: Andra Mari eguna:

9:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez etxe.

10:00etan: Andra Mari bola txapelketaren hasiera.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Txakolin dastatzea.

17:00etan: Bola txapelketaren bigarren saioa.

18:30ean: 45 urtetik gorakoen II. dantza txapelketa.

19:30ean: Gazteen triki-poteoa.

21:00etan: Gazte-afaria.

00:00: Asto karrera.

Aurretik eta ondoren: Garikoitz Lizarraga eta Iñaki Larrañaga trikitalariak.

Abuztuak 16, asteazkena: San Roke eguna:

9:00etan: txistularien goiz-eresia etxez etxe.

10:00etan: San Roke bola txapelketaren hasiera.

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Herritarren arteko herri-kirol saioa.

17:00etan: Bola txapelketaren azken saioa.

20:30ean: Herri afaria. Bertsotan: Sebastian Lizaso, Imanol Lazkano, Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin.

Ondoren: Alaitz eta Olatzekin dantzaldia goizaldera arte.

Abuztuak 17, osteguna:

15:00etan: Herri-txukuntzea.



ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika.
Legorreta: Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda.
Segura: Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle.
Zumarraga: Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..



LADA
Ssang Yong

ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Iragarki laburrak:

Hemendik aurrera Goierritarrako iragarki laburrak kobratu egingo dira,

hitz bakoitzeko 0,60 euro.

Horren truke, iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

Harremanetarako:

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasainen pisua salgai. 65 m². Eraberritua. 695739069.

Idiazabalen apartamentua salgai. 656751859.

elkarbanatzeko

Madriren ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzailea. 914595390.

logela

Goierri logela bat hartuko nuke alokairuan. 695759443.

errentan hartu

Lazkaon, Ordizian edo Olaberrin alokatzeko pisu bila nabil. 943164897. Cristina.

Alokairuan pisua hartuko nuke. 617752018 - 650312304.

Ordizian edo inguruan familia arduratsuak pisua errentan hartuko luke. 627568311 - 667032109.

LOKALAK

salgai

Donostian, Artzain Ona inguruan, sotoko lokala salgai. 38 m². Bizitzen jartzeko prestatuta. Berritua. Aire egokitua. 650114788.

NEGOZIOAK

errentan eman

Kafetegia alokatzen da Beasainen. Bikote arduratsua nahiago. 656799695 / 943888288

GARAJEAK

salgai

Beasainen, Otaola kalea 7an garaje itxia alokatzen da. 943027693.

ANIMALIAK

opari

Bi hilabeteko artzain belgikar txakurra oparitan. 943882034.

Katuak opari. 678924478.

Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
Beasain

943 160 120
www.ikaskide.net

UDA 2006

INFORMATIKA

- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Office
- ✓ Mekanografia
- ✓ Ordenadore bat ikasleko

INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Cambridge-ko azterketak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)

IKASKETA TEKNIKAK

- ✓ Irakurmena
- ✓ Azpimarraketa
- ✓ Eskema
- ✓ Laburpena
- ✓ Buruz ikasi
- ✓ Azterketa prestatu

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY

FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTIK BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

BESTELAKOAK

salgai

Foto Ibiltaria argazki denda likidazioetan dago. Likidazioak hasi berriak dira. Inguratu dauden aukerak ikustera.

Haur silla salgai: casual play vintage, 6 gurpilduna, beltza, koltxoneta, poltsa eta burbu-jarekin. 130 euro. 626503990.

Salgai: 4 ateko armarioa (1.90 m zabalean, 2 m altuan); egongelako 2 mahai (110x50 bat, 40 x40 bestea). Erdi berriak. Osagai ugari opari. Prezio interesgarria. 20:00etatik aurrera deitu. 636370101.

IBILGAILUAK

erosi

Peugeot 306 erosiko nuke: 5 atekoa, 2002. urtekoa eta ondo zaindua; Volvo V40 bategatik aldatu. 943161945.

salgai

Honda CBR 900 RR salgai. 2002. urtekoa. 16.000 km. Oso egoera onean. 658744903.

Volkswagen California furgoneta salgai, 95. urtekoa. 16.000 euro. 610264720.

Mercedes Vito 110 CDI salgai. 2002. urtekoa. 91.500 kilometro. 666723855.

LANA

eskaerak

Ordiziako arropa denda baterako neska bat behar da. Interesatuak argazkia eta curriculum bidali 45 posta kutxara, 20240. Ordizia.

Marrazketa teknikoa emateko irakaslea behar du Beasaingo akademia batek. 685722403.

Goierriko jaki enpresa batek dendetarako kudeatzailea behar du. Ekonomi edo/eta bezero arreta kudeaketan bi urte edo gehiagoko esperientzia nahitaezkoa. Soldata interesgarria eta mugagabeko kontratua. Interesatuak CV-a bidali rencinas@sainzconsultores.com erref. GT 574 edo 943297482 fax zenbakira.

Goi mailako ingeniartzako

jendea behar da klaseak emateko. Bidali CV-a:

urratsak@telefonica.net

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Ordutegia: 8:00etatik 13:00etara. 650550202.

eskaintzak

Garbitzaile lanak egingo nituzke. 664581264 - 679890464.

Emakume bat eskaintzen da, ibilgailuarekin, garbiketa lanerako, adineko pertsonak zaintzeko edo lan ez kalifikatueterako. 678781985 - 606180560.

Itzulpenak egiteko prest nago, euskara/gaztelaniatik alemanierara. Christiane Bendel, 943164897.

cristinabendel@yahoo.es

EGUNEZ EGUNEKO UKIPEN-LENTEAK

Bausch & Lomb

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

0,90€
eguneko



R.P.S. Nº 190/04 LLG.

TXARTEL PLANA

1. EROSKETA

2 kaxa x 90 unit.

-%30

97€
+
OPARIA

2. EROSKETA

2 kaxa x 90 unit.

90€

3. EROSKETA

2 kaxa x 90 unit.

76€

4. EROSKETA

2 kaxa x 90 unit.

69€

J. Carlos Guerra, 1

Tel. 943 79 29 95

ARRASATE

Ibargarai, 16

Tel. 943 76 15 75

BERGARA

C/ Nueva 15, - GROS

Tel. 943 32 66 49

DONOSTIA

Bidebarrieta, 2

Tel. 943 20 05 22

EIBAR

Koldo Mitxelena, 7

Tel. 943 51 78 11

ERRETERIA

Mendibil M. G.

Tel. 943 63 99 01

IRUN

J.M. Barandiaran Enp

Tel. 943 88 99 88

ORDIZIA

San Frantzisko, 23

Tel. 943 69 84 70

TOLOSA



Gabiriarrak Iruñako Sanferminetan 1930. urte inguruan

Atzeko ilaran, ezkerretik eskuinera: Patxiko Markina (Errementari Azpi), Teodoro Galdos (Etxeberritxo, semea), Hilario Goiburu (San Esteban) eta Joxe Ariztimuño (Igeribar).

Aurreko ilaran: Kasiano Larrañaga, (Ugarte) eta Eulogio Galdos (Etxeberritxo, aita)

Tel. eta Faxe: 943 886 558
 Poltsikoko tel.: 616 698 288
 Zubi-Erreka Industrialdea, 42
 LAZKAO
 toldosagustin.com
 auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Jose Agustin Jauregi

iñAUSTI N-1 errepidea
 lurre auzoa
 OLABERRIA
 ☎ 943 88 43 01

KARROZERIA

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
 barne diseinua
 dekorazioa

Garai berrietarako
 ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
 Tel.: 943 16 40 40
 BEASAIN

“Eguneroko ogia, ogi bereziak
 eta pastel ezin hobekak”

K. Nagusia 35 BEASAIN
 ☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
 ☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
 ☎ 943 16 00 44

**GOKINDEGIA
 GARIPONA**

Dolarea
j a t e t x e a

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21
20200 Beasain
T 943 888 829

*Aho finen
gozamenerako...*

Gure kartak otordu
landuak eskeintzen
ditu non zapore eta
texturak aurkezpen
harmoniosuekin
konbinatzen diren...



fraktura

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Ziztu BIZIAN

Euromasterrekin

MP3 512 MB

opari



X2

PNEUMATIKOAK



RADIO
opari



X4

PNEUMATIKOAK



gainera, edozein erosketagatik
BOLANTE-ESTALKI BAT

LEHEN



ORAIN



HILABETEKO
ESTRA

UDAKO BERRIKUSPENA

EUROTIK
54'45

PROMOCION VALIDA HASTA FINAL DE JULIO

C/ Bikain, 3 (lurre Auzoa)
20212 Olaberria Tel: 943 88 05 66

neumáticos
cambio de aceite
frenos
amortiguadores
escapes
baterías



EUROMASTER

Todo nos conduce a ti.

www.euromaster.com